

# LIBURVAK

[PIERRE LAFITTE ITHURRALDE]: *Hil-biziaren ordenua.*—  
“Herria” astekariak agertua [Baionan, 1964'n.]—15 orrialde.

Pierre Lafittek euskeraz erabili dabezan gaiak asko eta garrantsi aundikoak dira, danok dakigunez. Orain argitaratu deuskun liburutxo au, berak diñoskun moduan, “Ixtorio xahar batetik eta biarnesez eginikako komedia batetik hartua da *Hil-biziaren ordenua* edo testamentua”.

Ikusgarri polita da. Mundu onetako ondasunen atzean tranpian dabizenentzako irakaspide ederra emoten daben komedia.

Izkuntza bizia, bein be ez geldia edo astuna. Esaeretan-da aberatsa. Erriko jendeak ondo aditzeko modukoa. Arrapatada batean irakurtzen da. Gelditu barik asi eta bukatzekoa.

Gogoan gelditzen dira komedia onetan agertzen diranen izenak: Ganix eta Felixi andra-gizonak, Jauregizar zalduna, Pello errotaria, Agostin arotza. Baita Jenofa Kloskeroeneko neskatillea be. Baiña batez be Felixi andrea.

Bi zatitan dago egiña lana. Lau zatitxo daukoz lenengokoak, eta bost bigarrenak. Etxura dotorean atera dabe liburutxoa. Ardura aundiagaz eginda dago moldiztegiko lana.

Merezi dabela uste dot Bidasoaz emendiko euskalkietara itzultzea ikusgarri polit onek, emengo euskaldunentzat (irakurleentzako eta teatroetan emoteko).

N. A. G.



SANTA TERESE DE JESUS. *Onbidea (Camino de perfección)*.  
Euskeratzalleak: Aita J. Onaindia ta Aita L. Akesolo, karmeldar-  
rrak. Gráficas Ellacuria, Bilbao. 1963.

“Ba-zan ordua”, liburuaren itzaurrean irakurtzen degun bezela. Ba’zan, bai, Teresa Deunaren liburu eder au euskeraz ikusi genezan ordu. Au eta beste guztiak. Bañan au batez ere.

Avila’ko emakume aundi aren liburu guztiak dira irakurgarri. Ez bait-da errex ayen artean aukera egiten. Bañan gure euskeratza-  
lleak au aukeratu dute, eta guk uste ondo aukeratu dutela.

*Camino de perfección* gogozko otoitzerako deya da; liburu onen bitartez Teresa Deunak, itzezko otoitzunak gogozko otoitzun egin nai ditu: mallarik goyeneko gogozko otoitzera bultzatu. Eta ortarako ematen dituan arauetan, berak esan gabe ere bere burua agertzen du, bide ortan berari gertatua erakusten du; ori bai, beste norbaiti gertatua bezela, bañan berak nola otoitz egiten duan erakusgarri, irakurtzaleen xuxpergarri. Orregatik, Teresa’ren liburu au ere, besteak bezelaxe, auto-biografi-kutsuduna da. Eta besteak beste, orretxegatik da ain gogoz irakurtzen. Donearen barru-barruko ezkutua erakusten dizkigulako.

Eta zer esan, euskeratzalle biok egin duten lanarentzat?

Biok, zein baño zein, sayatu dira beren egiteko zallean. Batek kapitulu bat, eta besteak urrengoa, guk dakigunez, eta idazkerak berak ere aditzera ematen duanez. Bizkayera jator-jatorrean. Euskeratzellan erreza ez dalarik, naiko “errez” egiña. Ots, naiko argi. Emakume bizkor aren irudimena nundik nora dabillen, erderaz bezain errez aditzeko eran. Ez baitda euskeratze ontan, Teresa’ren erdera jatorra bat ere gogora ekarri bearrik —beste zenbaitetan gertatzen dan bezela—, egilleak esan nai duana ulertzeko. Irakurtzallearen adimenak ez du, emen, erderan zear igaro bearrik, Deunaren asmoa ta pentsamentua ezagutzeko. Zuzen-zuzen dijoa bere elburura. Eta ez da “meritu” makala.

Guk, *Camino de perfección*, *On bide* ez baño *Obera bide* esangogenduan; bañan zerbaitegatik ipiñi dute euskeratzalleak dagon bezela, eta ixillik gauden. Bear bada, “Obera bide” esanda, zeinbatzuek “Ogera bide” adituko ote-zuten bildurrez? Dana dala.

Beste akats bat? Gure euskeratzalleak *elipsis* askotxo erabiltzen ez ote-duten; ots, aditz laguntzalea geitxo ixiltzen ez ote-duten. *Elipsis* oyek, ondo erabilli ezkerok, oso ondo ematen dute; bañan ortarako neurritz erabilli bear; neurritz; murriz-antzean obeto, guk uste, ugariegi baño.

M. LEKUONA



YURRE'TAR JULIAN AITA: *Bedoña'tar Joaquin Abagaia Kapu-  
txinoa "Loramendi" (1907-1933) eta aren garaia*. Bilbao, Grá-  
ficas Bilbao, 1962. 41 orrialde.

Liburutxo onetan Loramendi olerkariaren bizitzari eta euskerazko lanai buruz idazten dau Aita Julian Yurrekoak. Loramendiren denporako euskal literaturaren barri ugari be ematen dauz: gai atsegiña eta ondo egiña.

"Urrezko Gizaldia euskerarentzat", esaten deutso XX gizaldia-ri. Garai onetako euskal idazlerik aipatuenak be agertzen dira, ondo jadtixirik eta labur.

Gero, Loramendiren olerkiak, eta iritziak euskera landuan eta egokian. Ez dot uste izango direnik gaur Aita Julianen moduan ezagutzen dabeenik Loramendiren lana, astiro eta kontzientiz azterkatu dabelako gai orretan.

Ogei ta bost olerki eta bost lan itz-lauz; ogei ta amar lan dira guztira Bedoñako olerkariarenak. Banan banan eta bat itxi barik, danak aztertu eta oarkatu ditu, eta olerki batzuk argitaratu be bai. Iru olerki kendu ezker (il-eresi bat, balada bat, eta bukoliko motaen aitekkoa irugarrena), beste ogei ta biak liriko jainkotiak ei-dira oso osotan, eta olerki mistikoa, *Barruntza leioan*, entzuterik aundiena irabazi dabena.

Lan polita egin deusku benetan Aita Yurrek liburutxo onekin. Asia-aldeko mixiñoetan urte askotan ibiliarren, bein be ez da aztu jaio zan Euskalerriaz, eta beti gorde deutso lekutxo bat euskereari. Andik bialdu ebazan kronikak *Zeruko Argia*-n agertu ziran. Txinatik etorri ta gero aldizkari orren zuzendari egin eban, eta aldizkari orretan bertan eta beste ainbatetan idatzi dau, eta ez urri, Bida-soaz andikaldekoetan eta emendikoaldekoetan: urrin joan barik, emen *Egan*'en bertan be bai.

N. A. G.



ANTONIO M.<sup>a</sup> ZABALA, A. LARRAITZ, JUAN MIR. *Periyaren zalapartak*. Auspoa Liburutegia, 26. 1963.

EGAN berandu xamar agertzen da jendartean azken-aldi onetan; "Auspoa"-k, berriz, asiera artan artu zuen ibillera ezta batere mansotutu. Ori dela-ta, liburu berrien kritika-lanean asten naizen bakoi-

tzean, meta arkitzen dut pillatua mai-gaiñean. Orrexegatik, labur eta berandu obe den ezkerio iñoiz ez baiño, zillegi izan bekiet bear nukean baiño lasterrago —abespelean edo, antziñako bizkaitarrek esango zuketean bezala— neure egitekoak egitea.

Bost teatro-lan labur agertzen dira liburuxka onetan, *Periyaren zalapartak*-ez gaiñera beste lau. Aipatu dudana eta *Melitona'ren bi senarrak* Alfonso M.<sup>a</sup> Zabala apaiz jaunarenak dira. Iztun ederra eta jatorra genduen, komerigille aparta ezpazen ere.

*Mendibe'tarren larriyak*, berriz, "A. Larraitz"-en izenean agertu zen, baiña izen ori ez omen da izengoitia baizik. Azkeneko biak, *Utzi biarko* eta *Gizon bikañak*, itzulpenak omen dira: Juan Mir salesianoaren *Los apuros de un fotógrafo* eta *Los tres valientes*-en antolamenak.

Liburuaren itzaurreak diona aldatuko dut onera: "Geroztik sarritan aurkeztatu izan dira gure errietan, ta makiña bat euskaldun oroituko da bere gartzetan komeri oyetako bat edo beste ikusiaz". Gazteago direnek ere, ordea, badute or zer ikasi: ain urbil eta ain urruti dugun garai bateko giroa, oiturak eta izkera, teatrorik xumeena ere ixpillu-antzekoa baitugu.



*Azpeitiko premiyoaren bertsoak (1893-1895)*. Biltzalea: Antonio Zavala, S. I. Auspoa Liburutegia, 27. 1963.

Aita Zavala'ren ondasun-kutzak ez omen du ondorik ez ondarrik eta orrela bear ere, an metatuak dauzkanak kabituko badira. Ezta aberats zeken orietakoa, ordea, esku-zabala baizik, zuzena baitu izena. Eztauzka aberastasunak beretzat gordetzeko, gu guzioi eskeintzeko baiño: eman, gaiñera, artu baiño geiago ematen du beti, bertso zaarrak argitasun berriz argituak zabaltzen baititu.

Gaia, oraingo aldian, Antoine d'Abbadie ezagunak Azpeitian, 1893-an, eratu zituen euskal-jaiak dira. Obeto esan, jai orietan egin zen bertsolari-saioa eta are obeto saio orretako sariaren banatzeak —Pello Errota, Joxe Beñardo eta Udarregui zirela merio, beste zenbait zituztela lagun— sortu zituen ixtillu latz eta luzeak. "Bertso oyeok —dio Aita Zavala'k— Euskalerrri guzira zabaldu ziran. Bertsolarien artean ezpaita sekulan sortu au baiñon sesio gogorrororik". Eta inguru onetako euskaldunok ongi dakigu "sesioa" zen den.

Gaur, orduko aserre biziak baretu dira, noski, eta orduko sugarrak illaundu. Alaz ere, edo orrexegatik beragatik, gogoz irakur di-teke liskar sumin aren oiartzun baketsu au.



BIZENTA A. MOGEL. *Ipui onak*, irugarren argitalpena. Auspoa Liburutegia 28. 1963.

Ona, irakurle, irugarren aldiz arako ipui ospatsu aiek, "zeintzuetan arkituko dituzten euskaldun nekazari ta gazte guziak erakaste ederrak beren bizitza zuzentzeko". Berrogeitamar idatzi zituen prosaz Bizenta'k (1782-1854) eta, oriek orrazteaz gaifera, beste zortzi erantsi zizkion bertsoetan bere osaba Juan Antonio sonatuak, *Peru Abar-ka*-ren egilleak.

Iru itzaurre ditu argitaraldi onek: egillearena berarena aurrenik, Domingo Agirre'k bigarrenari ipufi ziona ondoren eta orain Juan San Martin'ek ederki baiño ederkiago moldatu duena azkenik. Guztiok dakigu Mogel'darren bizitza eta obra zein ongi ezagutzen dituen.

Bizenta Mogel ezta aurreneko emakumea euskal-literaturan, ezta alderatzeko ere. Bai baitakigu izlari eta bertsolari trebeak genituela andre euskaldun asko Erdi-Aroan, zenbaiten izenak eta eresiak gureganaiño eltzeko indarra izan duten ezkerero. Gero, ordea, ixildu egin zitzaizkigun edota, esan dudana esatea geiegi den ezkerero, etzituzten ixuri zituzten itzak gerorako erein, fruitu gozo biur zitezen ondorengoentzat. XVIII'garren mendeak, oifiarri eta dorre garai dugun mende orrek, zabaldu bide zizkien berriz gizaldi luzeetan barrena giltzatuak arkitu zituzten atepak.

Badakigu, eta ederki azaltzen du ori San Martin'ek beste ainbeste gauza bezela, alferrik joko dugula onelako ipui eta alegietara gai berrien billa. Antziñako denbora lainotsuetan dituzte sustraiak, India'ko *Pancatantra* eta *Hitopadesa* bildumetan gutxienez, eta andik zabaldu dira gure Sartalde onetara, garai askotan eta bide askotatik. Euskeraz naiz erderaz egon, berdintsu diraute beti muiñez eta mamiz, azala zertxobait aldaturik agertzen badira ere, aldi eta alde ba-koitzari dagokionez.

Merezi zuten, eta ongi merezi ere, berriz agertzea ainbeste irakurle xee eta larriren onerako, eta emen ditugu gure artean "Auspoa"-ri eta San Martin-i eskerrak.



TORIBIO ALZAGA. *Burruntziya*. Auspoa Liburutegia, 29. 1963.

Garai batean euskal-teatroa landu zutenen artean, uste dudanez, gailen eta nabarmen agertzen zaigu Alzaga, bere-berea zuen saillean

beintzat. Komeriaz ari naiz, esku trebea baitzuen, era berri ausartetara jo gabe, jendeari parre eragiteko. Zorrotza zen pertsonak eta pertsonen xeblekeriak begiz jotzeko, bazekien korapillo politikak lotzen eta, lotzen ez ezik, baita lotu-ala askatzen ere, ez ikuslearen buru-austetarako, atsegiñerako baizik.

Lau ekitaldi bakarreko jostirudi daude emen bilduak: *Burruntziya*, *Bernaiño'ren larriyak*, *Txibiribiri* eta *San Tomas'eko feriya*. Azkeneko au da zaarrena, 1892-an aurkeztua estreñako aldiz Donostia'ko Teatro Zaarrean eta 1894-ean argitara emana, Donostia'n bertan.

Bilduma polita benetan eta askok gogoz irakurriko duena. Irakurgai atsegiña da edozeini entzat, bai leen ikusi dituztenentzat eta bai ezagutzen eztituztenentzat ere.



GRAZIANO ANDUAGA, *Egunsentiko txoria ta beste bertso asko*. Auspoa Liburutegia 30, 1963.

Ongi ezaguna dugu Graziano Anduaga, "Gezalza'ko aitona", plaza-gizona ezten arren, baizik eta bertsolari bakartia eta ausnarkorra, Baxurko eta ZapiRAIN anaien antzera. Eta ezaguna dugu batez ere Aita Villasante'k duela zenbait urte (ikus 1961-ko EGAN, 259-260 orrialdeetan), aren gogoeta sakonak eta esaera zorrotzak aotik pape-rera aldatuaz, bildu zuen *Aitonaren usta* joria dela bitarte.

Orain ere, Aita Villasante berbera dugu biltzaillea eta itzaurrearen egillea. Baiña bertsoak bildu ditu oraingoan, "Egunsentiko txoria" eta beste bertso asko, 1911-n asi eta 1949 artekoak.

Eta nork daki? Egunen batean, bear bada, zaletasun geiagorekin billatuko dituzte bilduma onetako bertso apalak beste oraingo zenbait neurtitz dotoreago baiño. Poesia uts eta aratzaren eredu ezpadi-  
ra ere, badituzte, interesa eta gogoia erakartzeko, beste alde asko.





MARZELINO SOROA LASA. *Baratzan*. Auspoa Liburutegia 31.  
1963.

Soróa, euskal-teatro berriaren aitzindari ernea, etzen teatroaren barrutian mugatua gelditu. Jostaketak, izkirimiriak eta nolanaiko naas-maasak —bi izkuntzatan argitara zuen *Azak eta naste* eta gaine-rakoak lekuko— arras gogoko zituen.

Elkar-izketak gailen jaso zuen burua gure artean-plazara irten bezain laster, *Peru Abarka*-ri eskerrak. Gero, ordea, makurtu zuen buru arroa eta irakaspide soil biurtu zen, naiz euskera ederrez jantzia egon, ederbideak utzirik. Orixe gertatzen zaio, esate baterako, Iturriaga'ren *Josalak* ezagunetan.

Soróa'ren elkar-izketei, ordea, eztarie eskola-kiratsik. Teatroan bezala ari da, bere garaiko eta inguruko gizasemeen mintzaera aalik bizien eta zeatzen aurkeztu naiean, begi-belarrien aurrean bagenitu bezala. Itz batean, irakurleen atsegiñari geiago begiratzen dio ikasleen probetxuari baiño. Alaz ere, badago orrialde orietan zer ikasia ugari ere, egaztiak, baserri-lanak edo oiturak direla.

Eztakit ez ote den auxe Soróa'k bere bizian ondú zuen idazlanik biribillena: nik baietz esango nuke. Eta duda-mudatan dabillena zuen ala oker nagoen, eskuan du erremedioa. Ar beza liburuxka au eta asi bedi irakurtzen. Ezpaitu eskuarki bukatu baiño leen utziko.

L. MITXELENA



JEAN HARITSCHELHAR: *Martin Larralde-Bordachuri, le poète-galérien*. Imprimerie des Cordeliers. [Bayona 1963]. 30 orrialde.

Emeretzireun eta irurogei-ta bigarren urtean Pauben egin zan Pirineuetako Ikaskintzen Batzarrerako idatzi eban itzaldia da Haritschelhar irakaslearen lan au.

Eztoguz larregi ezagutzen XIX gizaldiko gure olerkariak, Bida-soaz beste aldekoak batez be. Orraitiño astiro-astiro bada be benetako meritudun lanak agertzen dira noiz beinka, eta orain Baigorriko Euskaltzain jakintsuak dakarguna onen-onenatariko bat dogu. Ere-dutzat artu ginke lan au, bere antzera besteak egiteko.

Egillearen denporan idazten ezpada bere bizitza, gero urteak joan eta urteak etorri sarritan gertatzen da elezar biurtzea, jendeen buru-ametsetakaitik, olerki-kantuak berak emoten dabena gaia oifarriztat arturik. Ori literatura guztietan gertatzen dana da, baiña eztaukogu guretik zertan urten, ba Decheparegandik asi eta Etchahunen artean badaukogu nor aipatu.

Ondo aztarketan ditu Larralde-Bordachuriren bizitza ta bere olerki ezaguna :

*Mila zortzi ehun eta hamabortzgarrena,  
Ni Ahazparnen preso hartu nindutena.*

P. Lartzabalek teatroa egin badau Larralde-Bordachuriren ganean, benetako kondaira dakargu Haritschelharrek. Hazparneko artxibuak artu ditu iturritzat. Beko-Pirineuetakoak eta Rocheforteko Itxaso-Artxibuak be bai, eta bibliographia ugaria gañera.

Badaki gauzak bere lekuetan ipinten eta bear diran moduan esaten, astuntasun barik, gogoz irakurtzeko moduan. Nik beintzat oso gustora eta baten baiño geiagotan irakurri dot, zatika-zatika batzuetan asi ta akabau beste batzuetan.

N. A. G.



JEAN ETCHEPARE. *Mendekoste gereziak eta beste*. "Eskualtzaleen Biltzarra"-ren gerizpean *Goiztiri*-k atherea. Bayona, 1963.

Eun t'emeretzi orrialdeko liburu onek P. Charritton-en aintzinsolasa dakar Jean Etchepare nor zen eta zelako idazlea zen adieraziz, ta agurrezko oar bat gazterik galdu zen izkiriatzalle oni bere aitak egina.

1960-eko otsallean "Eskual-Kulturaren-Alde" batasunak eratu zuan aurrentzako kondairarik onenari sariketa, ta Etchepare gazteak, artean 22 urte zitularik, irabazi zuen sariketa ori bere *Mendekoste gereziak* ipui politarekin. Andik denbora gutxira, 1961-eko abenduaren 10-ean, il zen gure idazlea, 24 urte juxtu zitularik.

Sarituaren izena aintzat arturik, aurretiko ta geroztiko lanekin egindako bilduma bat da ipui ta azalpenak aurkeztuz.



Lanetatik garbi ikusten da aren begi-kolpe argia: oarle bikañez gañera kezkatu nabari da. Azalpenetan, ezerk igesik egiteke, inguru-ninguruak argi ta garbi adieraziz dijoa. Maiz, bere pentsamenak metaforaz biribilduz: "Ai nere buruari pentsatu gabe bizi ahal banindadi!". Bere baxenabar euskalkian, ifioiz itanoka, onela mintzo da: "Gizonak ez dezaken bere zoriona senti (zion erbestetik maitemindū batek bere emaztekiari), ez baitaki zer den zoriona. Bainan gero dun ohartzen, orhitzearekin, atzo memento hura berriz iragan nahi liken. Bizkitartean memento hura berean, zorion mikorik sendi edo atzeman".

Onelakoa da Etchepare zanaren idazmota, onelakoa bere kezka, noizipeinean larrimindurik. Bere orrialdeak barna somatzen ditugun gertaera ta esaerak nekez aitzū genezazke: *Kattalin gorri*, *Donadoa*, *Etxeokak*, *Argi-zirrinta*, *Kurutze gorriak* eta abar, gogoangarri izan-go dituzte irakurleak.

Ez pentsa denak illunak direnik. Sarri mintzo da itxaropen argiz. Era zabalekoa baita gazte onek utzi digun uzta. "Bihotzean su baten ukaitea aski da, zorionaren ukaiteko". Ta euskera ta Euskalerrria zituan bere biotzeko sua.

Izkuntza, esan degun bezela, Garazi aldekoa da, jatsuarra baitzen. Nobelagintzarako doai bereziak agiri zaizkio orren gazterik galdu genuen idazle bikain oni.

J. S. M.



EUSEBIO ERKIAGA: *Aita Kandido Basabe, S. J., euskal-idazlea (1867-1928)*. [Gráficas Bilbao, 1963]. 21 orrialde.

Aita Basaberen bizitza ta euskal idaztiei buruz barri ugari emoten deusku Erkiagak lan onetan. Euskaltzalea zan ezkerero, Lekeitiar Josulagundiko onen bizitzako egitada bat baiño geiagok daukee zer ikusi euskereagaz.

Eleizgizona eta Euskaltzalea, edo Lekeitioko Aita Basabe Josulagundikoa. Orixe izango litzake izenburu edo titulu egokia bere bizitza osotu-luze bat egiten daneko liburuarentzat. Mixiolari aundia izan bazan, euskaltzale asko txikiagoa ez.

Bere erritarraren idaztankera ondo aztertzen dau Erkiagak, eta gero bere idaztietatik ondo aukeraturiko zati batzuk be argitaratzen deuskuz.

Geroago eta geiago gustetan jaku Erkiagaren euskerea. Kiriki-  
ñokin eta Agirrekin batera, Erkiagagaz iruko ederra dauko Bizkaiko  
euskalkiak idazleetan.

Onen antzeko beste lanen baten egille dogu Erkiaga. Eztaitezela  
azkenengoak izan!

N. A. G.



VICENTE DE AMEZAGA ARESTI. *Hombres de la Compañía  
Guipuzcoana*. Prólogo, por Pedro Grases. Banco Central de Ve-  
nezuela, Colección histórico-económica venezolana, IX. Caracas  
1963.

Itz bitan azalduko dut askozaz ere astiroago azaldu bear nukean  
gaia. Euskal-idazle trebea eta EGAN-en aspaldiko lankidea dugun  
Amezaga'tar Bingen'ek liburu berri bat agertu du oraindik orain er-  
deraz, histori-liburu mardul eta trinko bat. Gure historiaren berri  
jakin nai duenak, gure XVIII-garren mendeko historiaren berri.  
orretara jo bearko du, bein ta berriro.

Geiago nai zuen, baiña eztu gutxi erdietsi. Entzute andiko Kon-  
pañia Gipuzkoarraren ar-emanak eta gora-beerak erabat aztertzea  
zeukan begiz jota, baiña, itsasoaz beste aldean bear adifia lekuko eta  
dokumentu ezin eskura zezakealako, Konpañiako zenbait gizon gai-  
llenen bizitza eta jokabidea aztertu ditu eta burutik burura, egin zi-  
tekean neurrian, azaldu. Lanaren ondore betea ikusirik eluke iñork  
esango landu gogo zuen gaia meartu bearrean arkitu denik.

Gizon urduri eta gogor orien kezkek, ardaillak eta lanak iraku-  
rri ondoren, askozaz ere obeto ikusten eta ulertzen dugu XVIII-ga-  
rren mendeak Euskal-erriari eragin zion gogo-aldaketa. Eta argi eta  
garbi ikusten dugu emen, gure artean ere, ekonomia izan dela gora-  
goko lanbide apaiñagoen oiñarri eta eragille. Konpañia sortu ezpa-  
litz, agertuko ote ziren, agertu ziren bezala, Azkoiti'ko Zalduntxoak?  
Jakingosea diru-gosearen ondoren eta diru-gosearekin batean eto-  
rri zitzaigun.

Ildefonso Gurrutxaga jaunari entzun izan diot Matxinada dela  
gure artean Zalduntxoan bestea aurpegia, aurpegi beltz eta lotsagarri  
xamarra: Zalduntxoak baitziran, izan ere, orduko jauntxoak edota



beintzat orduko jauntxoan gaiña eta pikaiña. Konpaiñiak ere izan zituen Venezuela'n matxidanak. Orrelako jokabideei dagokie noski, egungo izkuntzan, kolonianismuaren izena.

Ametzaga'k eztu iñoren aurpegiarik bezten ez zuritzen. Ikusten duena kontatzen du, jakille legez, eta kontatzen duenak badu beti funtsa eta indarra. Zenbait gizonen itxura eta irudia aurkezten digu, baiña irudi bizi eta iztun oriek zenbat eta zenbat gauza eztizkigute adierazten!

Egillari eskerrak, obeto ezagutuko ditugu gure aurrekoen aurkia eta inpertsua. Eta aurki-inpertsu orietan ez ote da nolazpait ere ageri gu geron aurki-inpertsuen egitura?

L. MITXELENA



“EL BIDASOA” Astekaria.

Beste aldi bat bete dau Irungo aldizkari onek. Ezta luze-luzea izan oraingoa. Berrogei ta bost zenbaki bakarrik. Ezta gutxi be, erri batean ateratzeko, baiña aldi luzeagoak ezagutu ditu, gure lelengo jarduntxoak emon genduzan astekari maite onek.

Laugarren aldia dala oraingoa, jarri izan dau izenburuan, baiña oker jarria da ori, ba iru aldi baiño geiagoren barri badakigu: Lendabiziko aldia, 1880-1887 urteetan agertu zana. Bigarrena, 1889-1893'koa. Irugarrena, 1915-1936'koa. Laugarrena, 1945-1962. Eta oraingoa, laburrena, 1962 (X-6)-1963 (VIII-17).

Badauke liburuen barri-emailleak nun aztertu astekari onen argitaraldiak noiz eta nola izan diran garbi iminten, ba, etxura danez, gutxitan daroie zuzen beren benetako aldia. Gaiñera, besterik ezpadakigu be, 1866'garren urtean Gipuzkoako Gobernadoreak emon ziotela Irungoei baimena “El Bidasoa” argitaratzeko, ori ziurtasunez dakigu, Kontsejuko artxibuan gordetan dalako baimen ori. Ezin geinke esan argitaratu zan ala ez, ba lorratzik be eztogu aurkitu, orainarte beintzat.

Jakiña da aldizkari au erderazkua izan arren beti edo beintzat sarritan emon deusala euskerari txoko bat, bai gerra aurretik eta bai gero be, 1915-1936 eta 1945-1962 aldietan batez be.

Egia esan, azkenengo aldian ezteutso euskerak toki asko kendu erderari. Baliteke erru piska bat geuk eukitea, Bidasoa aldeko idazleok, baiña ezta umezurtz be gelditu, eta gitxiago be ez ba *Kurlinka-*

ren jardun garrantzitsuak, *Lazkozen* olerkiak eta Lesakako *Galarza* andereño jatorraren erri-ipuiak argitaratuaz etxako juauskal usaiña. Gañera, erabili diran euskal gaiak ez tira banakak bakarrik izan, erderazkoak izan badira be. Or Luis de Uranzu, Ayalde, Pagogaña, Viglione, Artetxe, Zulaika, Aizarna, Busca Isusi, Albizu, Basterretxea, Oteiza, Sansinenea, Ernandorena, Estomba, Claveria, Urteaga, Pertika, Ernesto Mitxelena, Grazena, Crocq, Mendiburu, Leonardo Muller, Lazkoz, Navaz, Santamaría, González Carredano, Bereziartua, Reta, Alberdi, Begiristain... eta ez tira idazle danen izenak, ez gutxiago be.

Orraitik ezto gu uste betiko il jakunik "*El Bidasoa*", nai ta illeta antzeko soñuak edo urrutian entzun badira be. Lotalditxo bat, besterik ez tala, esango genduke. Beste aldi barri bategaz itxartu, urte askotarako. Bibliografo eta beste batzuri be zeregiña emongo deutseela astekari onek, uste dogu.

N.A.G.



*Eguneroko Meza*, Kerexeta'tar Jaime eta Aita Onaindia'k eginda, ta Kerexeta'ren ardurapean atonduta. Bilbao, 1963.

Badu liburu eder onek arako Orixe'ren *Urte guziko Meza-bespe-  
rak* ezagunaren egitea eta antza. Nola ez tu, bada, izango? Paperak eta edergarriak —euskal-tankerakoak— berdintsuak dira eta gaia, berdintsua ez ezik, berbera dute. Bizkaitarrentzat bizkaieraz egiña dela oraingo au, eta besterik ez.

"Gure erriak, Bizkaiak —dio sarreran Kerexeta jaunak—, ez dau euki orain arte Aita Santuak aitatzen dauan Meza-liburu ori; ta utsune ori beteteko argitaratu ta jarten dot zure eskuetan *Eguneroko Meza* liburu au, oraintsu egin diran aldakuntza barrien eratarata atonduta. Beraz, mundu zabalean BIZKAIERAZ itz egiten daben guztiai eskintzen dautset gure Eliza Amak ain maite dauan idazti au, ta biotz biotzez eskini be."

Txalogarria da benetan guztiontzat asmo au, baita bizkaitar ez geran euskaldunontzat ere, Kristau-liturgia liburu onen bitartez geiagoren irispidean jarri delako, Bizkai'ko euskalki ederra landuaz bide-nabar. Eta langilleen izenak aipatze utsak aski adierazten du, noski, lana nolako arduraz eta tajuz burutan atera duten.



Nolako izkera darabilten ere esana dago orrenbestez: besteak beste eta Bizkai'ko doiñuan ari direlarik, eztabiltza orretan ere ain urruti Orixe-ren joeratik. Erdiko bidetik jotzea erabaki du Kerexeta jaunak, besterik ezin zitekealakoan: "bai mordoillokeritik, bai garbikeritik alde egini". Itzetan, garbi-antxean, naiz eta itzulpena bealdean ezarri bear izan, noizean bein; gramatikari eta joskeran, berriz, areago, joskera jatorra eta gramatika baitira "edozein izkuntzaren arima".

Ezin esan dezaket aukeratu dutena ote den biderik onena Bizkai'ko kristauen egarria asetzeko, eta pizteko geiago bear bada, asetzeko baiño: auzi orretan ezta itzik ez botorik. Irakurle landuak, ordea —euskal-gaietan landuak, diot—, nekerik gabe eta atsegiñez irakurriko ditu orrialde oriek. Giro eta joera baten ezaugarriak nabarmen dituzte aurpegian, baiña giro eta joera orren fruitu zori eta elduak dira. Askok eta ederki dakite biur-lanean aritu direnak, baita dakitenaz zentzuz eta neurritz baliatzen ere.

Enaiz orain ziriak sartzen asiko, ezpainuke bizkaitarrei bere-bere duten euskalkian lege-emaille bezala agertu nai. Oartxo bat egingo nuke, guztiarekin ere. Naiz bizkaieraz ari, ezta ikusten zergatik naasi bear diren izkribuz *s* eta *z*: nik beintzat enuke *intzentzu* ez *pentzamentu* idatziko.

Diodan, azkenik, liburu eder au erosi gogo duenak, bestetan arkitzen ezpadu, Kerexeta apaiz jaunarengana jo bear duela, Elorrio'ra. Ale arruntak 74 pezeta balio ditu eta dotoreagoak 175 edo 200, urrezko ertzak dituenak bada.



## LUIS MARTIN SANTOS

Erioak eraman du itxuratxarki, erarik traketsenean, ixtripu ergei batean. Askok deitoratu dute: ezin konta ala, sendabide billa, bere-gana jotzen zuten eriek, adiskideek eta lagunak, bertatik ezagutu gabe maite eta miresten zutenek.

Atsekabea baretu eta ibitu ala, ordea, argiago ageri da galeraren larria. Nik ezagutu dudak iztunik ederrena galdu dugu: ezin agortuzko iturri izkutu batetik bezala zerion itza eta itz ozenak, aotik irten orduko, lerro-lerro antolatzen zitzaizkion zein bere tokian, soldadu ongi ezien antzera.

Etzuten, orratik, beñere menderatu: berak zeuzkan mendean soldadu ongi ezi oriek, adimen argiaren zerbitzuko. Ugari bezain zorrotz zen izketan, aberats bezain zeatz eta doi. Tresna miragarri ura esanera zeukan beti.

Itzez orrelakoa bazen, ezta arritzeko leen kolpean eta urratsean idazle garai agertzea. Bere *Tiempo de silencio*-k eztu parerik, nik dakidanez, Espainia'ko oraingo eleberrietan. Azalez aberatsa —aberratsesia, aukeran— izanik, are aberatsagoa da mamiz. Ainbeste eta ainbeste gogoeta daude or mukuru —gizonaz, gizarteaz, giza-lurraz—, kabi-eziñik, liburuari leer-eztanda eragiteko zorian... Eta gogoetetz gaiñera, barrenagoko beste zerbait ere bai: kezka kontentagaitza, obearra, eredu ederragoen ametsa.

Orain, ordea, eta orixe da negargarri, alargun eta soil agertzen zaigu liburua bere betean, ondorengo-eske, etortzekoa zen uzta joriarren aitzindari bakarti, izan zitekeanaren lekuko elbarri.

Letra-gizon eta artista orrek, gaiñera, iguin zuen, idazle erraz askok ez bezala, saio ajolakabeen itsaso lasaiean murgiltzea. Aitzitik jakintzaren muga estu-gogorrek zituen maite eta egiñaalean saiatu zen, autatu zuen arloan, jakite soilla itz-jario alferretatik bereizten. Etzen iñolaz ere gaur barruti orretan kaletar-jantzian dabiltzan salutadore orietakoa.

Sortzez eztakit, baiño jatorriz eta etorkiz etzen Euskal-errikoa. Alaz ere, gogoko zituen buru argiz ulertzen zituen euskaldunen gauzak. Maiz ikusi dugu Akademia Ibiltariaren ibilleretan, entzule adi eta ikasle gogatsu, ez aurreraegi ez atzeraegi, berak zekien tentuan.

Azkeneko aldiz elkarrekin izan genduen izketaldia datorkit gogora: mundu onetako gertariak, alegia, txingurritegi bateko txingurrien lanen gisa, asmoz eta buruz doazela ustekabeko ezbearren batek naasteka zoro biurtzen eztitueiño. Orrelako zerbait dirudi Luis'ea eriotzak ere: kanpo-aldetik, txingurrien usteak eta biziak zapalduaz, datorren ostiko zentzugabea. Baiña, txingurriek oin zapaltzaillaren berri ezta kitelarik, irazki naasia eta urratua eun ederragoren baten gai biur diteke goragoko Eule aren eskuz eta arduraz. Sifñeste ori da gure eziñaren sustengua:

*Ezin aal baledi, Jaun errukiorra,  
barkatu zaiozu zizukean zorra.*

L. MITXELENA.



# Juan Ignacio Uranga Berrondoren

## BIBLIOGRAFIA

### I. Euskal-erria Aldizkarian argitaratu ebazan lan batzuen barriak (1)

1. *Aritz bedeikatua*. [On Antonio Arzak jaunari eskeiñia.] XVIII (1888), 80'garren orrialdean.
2. *Eiztaria, zakurra eta ollagorra*. [Alegia. Itz-neurtuz. On Ramon Artola jaunari eskeiñia.] XVIII (1888), 217'gn. orr.
3. *Urtearen lau erak*. [Donostiako Joku-Loretsuetan saritutako olerkia, 1887'garren urtean.] XVIII (1888) 247-249.
4. *Uda-berria*. [Olerkia.] XVIII (1888), 284.
5. *Estaida urrezkoak*. XVIII (1888), 297.
6. *Amets bat*. [On Karmelo Echegaray jaunari.] XVIII (1888), 405.
7. *Nere maitiari*. [Olerkia.] XVIII (1888), 476.
8. *Uda*. [Olerkia.] XVIII (1888), 508.
9. *Musika*. [Olerkia. Nere adiskide On Franzisko Lopez jaunari.] XIX (1888), 87.
10. *Ama euskera*. [Olerkia.] XIX (1888), 107-108.
11. *Uda-askena*. [Olerkia.] XIX (1888), 302.
12. *Ebroko katea*. [Olerkia.] Nere adiskide On Jose Artola jaunari. XX (1889), 177-178.
13. *Biziko da*. [Olerkia.] XX (1889), 400.
14. *On Antonio Trueba jaunari*. [Olerkia.] XX (1889), 423.
15. *Egun on maitecho*. [Olerkia.] XX (1889), 469.
16. *Maissiyua*. [Olerkia.] XX (1889), 527.
17. *Orbela*. [Olerkia.] XXI (1889), 330.
18. *Maite zaitut*. [Olerkia.] XXI (1889), 330.
19. *¡Bakardadeko Ama!* [Olerkia Nere adiskide On Manuel Bago-ri.] XXI (1889), 443.
20. *Euskara zar maiteari*. [Olerkia.] XXII (1890), 19.
21. *On Pedro Nobia Salzedo-koari bere jayotzaren eunkidan*. [Olerkia.] XXII (1890), 51.
22. *On Klaudio Otaegikoari*. [Oroi-men olerkia.] XXII (1890), 93.
23. *Aurra eta katua*. [Alegia. Rosario Artolari.] XXII (1890), 184-185.

(1) I-LXVIII tomoak ikusi ditut. (XXXIV eta LIX ez, arkebiderik etzeukatelako nik ikusi nituanak.)

24. *Nere adiskide Pepe Artolari.* [Olerkia.] XXII (1890), 213.
25. *Amalauduna.* [On Karmelo Eche-  
garay jaunari.] XXII 1890), 306.
26. *Maite neria-ri.* [Olerkia.] XXII  
(1890), 342.
27. *Enadak.* [Amalauduna.] XXII  
(1890), 381.
28. *Eskillaren lau jo aldiyak.* [Oler-  
kia.] XXII (1890), 559-560.
29. *Amalauduna.* [Olerkia.] XXIII  
(1890), 9.
30. *Arrantsaleak.* [Olerkia.] XXIII  
(1890), 49.
31. *Zozua eta belea.* [Alegia.] XXIII  
(1890), 135.
32. *Chori itztuna.* [Alegia.] XXIII  
(1890), 136.
33. *Gure pelotariyak.* Luis Samperio.  
Biktoriano Gamborena, Bizente  
Elizegi, Billabonako beso-motza,  
Gabriel Echebeste, Juan Jose Esei-  
za (Mardura), Roman Beloki,  
Eustakio Brau, Juan Jose Goros-  
tegi (Irun), Pedro Arrese-Igor  
(Portal), Biktore Enbil, Gabriel Pe-  
dros. [Itz - neurtuetan.] XXIII  
(1890), 242-243, 314-315, 506-507;  
XXVI (1892), 50-52, 145-147;  
XXVIII (1893), 535-536.
34. *Iskiñosua eta zozua.* [Alegia.]  
XXIII (1890), 374.
35. *Amoriyua.* [Olerkia.] XXIII  
(1890), 410.
36. *Aita Larramendi-ren eunkidan.*  
[Amalauduna.] XXIII (1890), 570.
37. *Mandataria.* [Bideberritan, Ama-  
laudun saritua Donostiako Joku-  
Loretsuetan, 1890'n.] XXIV  
(1891), 62.
38. *Nekazari lanak.* [Olerkia. On Do-  
mingo Agirre jaunari. 1890'gko.  
Joku-Loretsuetan saritua.] XXIV  
(1891), 155.
39. *¡Ansi bat!* [Olerkia. Nere adiski-  
de Pepe Artola-ri, bere emaztea  
ill zan gabeen.] XXIV (1891),  
184-185.
40. *¡Ama euskara!* [Olerkia. On Da-  
maso Zabalza jaunari. 1890'gko.  
Euskal Joku-Loretsuetan saritua,  
Donostian.] XXIV (1891), 196-197.
41. *¡Korapillua!* [Olerkia.] XXIV  
(1891), 542-543.
42. *Amoriyuaren indarra.* [Olerkia.]  
XXV (1891), 104.
43. *Egiya.* [On Antonio Arzac jauna-  
ri.] XXV (1891), 168.
44. *Bi ollarren borroka.* [Itz-neurtuz.]  
XXV (1891), 222.
45. *Autsa.* [Olerkia.] XXV (1891),  
412-413.
46. *¡Jesus kurutzetua!* [Olerkia.]  
XXVI (1892), 307.
47. *Errube batian.* [Olerkia. Nere la-  
gun Felipe Kasal-i.] XXVI (1892),  
333-334.
48. *Izar.* [Olerkia.] XXVI (1892),  
566-567.
49. *Sosso-kumak.* [Alegia.] XXVII  
(1892), 53.
50. *Ille beltza eta zuriya.* [Itz-lauz.]  
XXVII (1892), 127-128.
51. *Kabiyan.* [Nere adiskide Jose Ar-  
tola-ri.] XXVIII (1893), 150-151.
52. *Kukua ta zozua.* [Olerkia.]  
XXVIII (1893), 423.
53. *¡Ernai!* [Olerkia.] XXVIII  
(1893), 473.
54. *Oñazea.* [Olerkia. On Biktoriano  
Iraola jaunari.] XXVIII (1893),  
498-499.
55. *¡Ojua!* [Olerkia.] XXIX (1893),  
54.
56. *Pakea.* [Olerkia.] XXIX (1893),  
294.
57. *Arkiera bat.* [Olerkia.] XXIX  
(1893), 493-495.
58. *Judas-en musu paltsua.* [Olerkia.]  
XXX (1894), 248-249.
59. *Uda-berryia.* [Olerkia.] XXX  
(1894), 267.
60. *Baso-pesta.* [Olerkia.] XXX  
(1894), 317-318.
61. *Azken-saria.* [Olerkia.] XXX  
(1894), 334-335.
62. *Loreak On Antonio Okendori bere  
talluntzaren currean.* [1894'garren  
urteko Euskal - Joku - Loretsuetan  
saritutako olerkia.] XXXII (1895),  
72-73.
63. *Nere izarra.* [Olerkia.] XXXII  
(1895), 506-507.
64. *Pakia.* [Olerkia.] XXXIII (1895),  
479-480.
65. *Lorea.* [Olerkia.] XXXIII (1895),  
511-512.




66. *Aingerucho bat*. [Olerkia. Magdalena Larralde Saratarrari-ri] XXXV (1896), 300.
67. *Estillargi*. [Olerkia.] XXXVII (1897), 574.
68. *Gure lorea*. [Olerkia.] XXXVIII (1898), 335-336.
69. *Iziar*. [Olerkia. Zestu'ko Euskal Joku-Loretuetan saritua.] XXXIX (1898), 540.
70. *Enadaen* \**elkartasun maitatiya*. [Olerkia. Zumarragako Euskal Jaietan saritua, 1899'n.] XLI (1899), 21.
71. *Obizdea*. (Balbina Olamendi eta Ansa ¡Aingerua!) XLV (1901), 285.
72. *Uda berriya*. [Olerkia. Oñatiko Euskal Jaietan saritua.] XLVII (1902), 302-303.
73. *Biursariyak eta kiskirrak. Udaberriyari*. [Olerkia. Ordiziako Euskal Jaietan saritua.] LI (1904), 237-238.
74. *Agur Pachiku. ¡Len gibela eta oraiñ!...* [Itz-lauz.] LX (1909), 12.
75. *¡Amets bat dirudi!* [Itz-lauz.] LX (1909), 60-63.
76. *Euskaldun bat*. [Bakarizketa. Itz-lauz.] LX (1909), 108-109.
77. *Gezurra diruni. Galai baten maitasuna*. [Itz-lauz.] LX (1909), 161-162.
78. *¡Au mundua!* [Bakarizketa. Itz-lauz.] LX (1909), 205-207.
79. *Ostatuan*. [Bakarizketa. Itz-lauz.] (1909), 298-300.
80. *Maitasuna*. [Bakarizketa. Itz-lauz.] LX (1909), 350-352.
81. *Gizon galanta*. [Bakarizketa. Itz-lauz.] LX (1909), 392-394.
82. *Osasungaya*. [Bakarizketa. Itz-lauz.] LX (1909), 441-443.
83. *Azeriya*. [Ipuiya. Itz-lauz.] (1909), 529-530.
84. *Azeri pikorra*. [Ipuiya. Itz-lauz.] LXI (1909), 5-6, 63-64, 113-115.
85. *Nekazariya*. [Bakarizketa. Itz-lauz.] LXI (1909), 170-173.
86. *Zorigaisstozko estayak*. [Itz-lauz.] LXI (1909), 433-438.
87. *Euskaldun Fedea*. [Itz-lauz.] LXI (1909), 581-584.
88. *Euskaldun Fedea. Bellas Artes-ko Antzokiya. Itz-lauz LXII (1910), 74-76.*
89. *Mari-Mielka*. [Itz-lauz.] LXII (1910), 337-340.
90. *Pedro Maria Otaño*. [Itz-lauz.] LXII (1910), 550-551.
91. *On Franzisko Lopez Alen*. [Itz-lauz.] LXIII (1910), 26-27.
92. *Mami*. [Bakarizketa. Itz-lauz.] LXIII (1910), 110-111.
93. *Franzisko Aizkibel Jauna*. [Olerkia. Azkoitiko Euskal Jaietan saritua.] LXIII (1910), 307-309.
94. *Urbietako Juan-en kondaira apurbat*. [Itz-neurtuz.] LXIII (1910), 371-372.
95. *Aiton baten negar samiña*. [Itz-lauz. Irakurgaya.] LXIII (1910), 409-413.
96. *Euskaldun Fedea antzoki edo Teatro Zarrean*. [Itz-lauz.] LXIII (1910), 566-568.
97. *Euskaldun Fedea antzoki edo Teatro Zarrean*. [Itz-lauz.] LXIV (1911), 78-80.
98. *Atozkit*. [Olerkia.] LXIV (1911), 112-113.
99. *Adrian Loyarte jaunari*. [Olerkia.] LXIV (1911), 218.
100. *Toribio Alzaga jaunari zorionak bere egunian*. [Olerkia.] LXIV (1911), 302.
101. *Mendi-Mendiyan*. [Olerkia. Jose Maria Usandzaga Jaunari.] LXIV (1911), 392-393.
102. *Chinissmen altsua*. [Itz-lauz.] LXIV (1911), 449-451.
103. *Pattar estula*. [Itz-lauz.] LXV (1911), 62-63.
104. *Luzaro bizi zaitia*. LXV (1911), 121.
105. *Euskal izpioroitzak*. [Olerkia.] LXV (1911), 157.
106. *Aitzkorri-n*. [Amaladuna.] LXV (1911), 484.
107. *Done Tomas eguna*. [Itz-lauz.] LXV (1911), 594-598.
108. *Sebastian Donearen eguna*. [Itz-lauz.] LXVI (1912), 79-83.
109. *Betiko lua*. [Olerkia.] LXVI (1912), 119.
110. *Iñauteriyen oroitzak*. [Itz-lauz.] LXVI (1912), 131-134.

111. *Egiyazko atsegintasuna*. [Itz-lauz.] LXVI (1912), 358-359.
112. "Endo". [Itz-lauz.] LXVI (1912), 406-409.
113. *Ametza*. [Itz-lauz.] LXVI (1912), 452-453.
114. *Uda*. LXVI (1912), 510-511.
115. *Oroitx shamurra*. [Olerkia. Serafin Barojari.] LXVII (1912), 67.
116. *Maisu billa*. [Itz-lauz.] LXVII (1912), 441-443.
117. *Barojaren echia edo moldiztegi zarra*. [Itz-lauz.] LXVII (1912), 538-547; LXVIII (1913), 4.
118. *Done Tomas eguna Antzoki Zarrean*. [Itz-lauz.] LXVII (1912), 574-577.
119. *Maisu billa*. [Jose Elizondo-ri, eskutitz gisa. Itz-lauz.] LXVIII (1913), 153-155.
120. *Raimundo Sarriegi Jauna*. [Itz-lauz.] LXVIII (1913), 398-399.
121. *¡Lo, ta, lo!* [Olerkia. Serafin Baroja-ren omenez.] LXIX (1913), 67.
122. *Guchitzen dijuaz*. [Itz-lauz. On Manuel Lizarriturri-ren omenez.] LXIX (1913), 258.
123. *Eresi bat ola gizonari*. [Olerkia.] LXIX (1913), 317-319.
124. *Agur Gabilondo*. [Olerkia] LXIX (1913), 354.
125. *Euskaldun Fedea*. [Itz-lauz.] LXIX (1913), 575-578.

N. ALZOLA.

(*Jarraitzeko*)





# EURIPIDE' ren

# M E D E I E

**ZAITEGI eta PLAZAOLA'tar IOKIN'ek Ph. D.**  
**eladeratik euskeratua**

*Aurkez ditzagun itz bitan egillea eta obra. Euripide, irugarrena jaiotzez Grezia'ko trajerigille andietan (480 urtean, K. a., jaiotzen, bere erritarrek persiarrak Salamina'n apurtu zituzten urte berean eta bear bada, zenbaitek dionenez, egun berean), etzan garai egokian agertu mundura eta batez ere teatro-plazara. Ilustrazio-aizeak zebiltzan nagusi orduko Grezia'n, gurean XVIIIP'garren mendean gertatuko zan bezalaxe, antziñako siñesteak, usteak eta oiturak arrazoiaren sugarretan deuseztatu bearrean. Trajeriak, berriz, gai jakiñak zituen, erlijio-kutsuzko elezaarretan sustraituak. Egoera larrian arkitzen zan, beraz, Euripide argi-semea, jakitez eta filosofiaz okitua, bere adimen zorrotzak eta zorrotzuak arbuizatzen zituen ipuiez baliatu bear baitzuen nai-ta-ez teatro-lanetarako.*

*Burruka larri orretan etzuen bere adiñekoengan laguntzarik arkitu eta bai destaiñarik ugari, Espainia'n gero Ruiz de Alarcon'ek bezala: amaika barre egin zuen aren bizkar, esate baterako, Aristofanes komerigille zaarzale bezain lotsagabeak. Geroak, ordea, eta ori zan gutxien uste zutena denbora bateko atenastarrek, maite eta miretsi izan ditu aren obrak eta aren ondotik ibilli da, aren atzean, Eskilo*

eta Sofokles'en ondotik baiño geiago: gogoz eta giroz erosoago, idea-  
go, arkitzen zutelako noski eta antziñako Grezia'k zearo suntsitu bai-  
ño leen utzi zituen ondakin zaarkituetatik askatuago. Diodanaren le-  
kuko ditugu Europa berrian, besterik ez aipatzeko, Racine eta Goethe.

Ar dezagun Medeie au bera eta zer gelditzen zaigu apaingarri  
soil —antziñakoenganako zorra nolabait kitatzeko edo erantsiak—  
dituen sorginkeriak eta erensugeak kendu ezkeru? Griña sutsuek bu-  
rrundan darabilten biotzaren irudi nabarmena, ainbeste zor dion kut-  
tunak baztertua izan dan emakumearen sumin kixkalgarría. Giza-go-  
goaren pintura zorrotza eta ausarta, eta batez ere emakumezkoarena:  
orixe izan da, izan ere, ondorengo askok Euripide'gan billatu eta imi-  
tatu duena.

Ezagun-ezaguna izaten zuten onelako trajerien gaia orduko ate-  
nastarrek eta etzegoen bada atze-aurre guztiak banan-banan azaldu  
bearrik. Guri beste ainbeste gertatzen etzaigun ezkeru, gogoan eduki  
bedi ixtorio onen erroak urruti daudela, arako Iason'ek, osaba gaiztoa-  
ren aginduz eta Argonauta diralakoak lagun zituela, “urrezko zarpa”-  
ren billa oraingo Georgia-aldera egin zuen bidaldi sonatuan. Zarpa ori  
eskura zezan, Medeie'k, amodioaren eragitez, iruzur egin zion aita-  
ri aurrenik eta etzuen gero anaia iltzeak eta puskatzeak beldurru, gre-  
koben igesa errastu naiean. Eta etxera —Tesalia'ko Iolkos'era— biur-  
turik ere, etzuen atertu Pelias, osaba gaizkillea, asma ditekean erarik  
makurrenean akaba-erazi arte. Andik aurrean bidali zituztenean, Ko-  
rinto'ra jo zuten biok eta or arkitzen ditugu trajeria onen asieran.

